

 <p>PASAIKO UDALA</p> <p>ZERBITZU, SARE ETA MANTENTZEA</p>	<b>Espediente zk. / N.º expediente:</b> 2024WORD0020
	<b>Sarrera-erreg. / Reg. de entrada:</b> - 000000
	<b>Titularra / Titular:</b> PASAIKO UDALA
	<b>Ordezkarria / Representante:</b>
	<b>Gaia / Asunto:</b> Uraren ziklo integralari buruzko ordenantza / Ordenanza sobre el ciclo integral del agua

## AURREKONTSULTA

- Uraren ziklo integralari buruzko ordenantza onartzeko espedientearen hasiera -

Alkateak 2024ko urriaren 18ko 2024/2276 ebazpen bidez honako hau erabaki du:

Lehena.- 20 egun balioduneko epean, kontsulta publikoa egitea, URAREN ZIKLO INTEGRALARI BURUZKO ORDENANTZA berria egin aurretik, herritarren eta kaltetuak izan daitezkeen erakundeen iritzia eta ekarpenak jasotzeko, honako alderdi hauei buruz:

### A) Ekimen honekin konpondu nahi diren arazoak:

Araudi horren bidez, ur-hornidurari buruzko udal-araudia eguneratu nahi da, eta saneamendu-sareari buruzko arauak ezarri.

Bestetik, prozedura argi, garden eta eraginkorra ezarri nahi da horniduran iruzur kasuak kudeatzeko.

### B) Onarpenaren beharra eta egokitasuna:

Beharrezkoa da uraren ziklo integrala arautuko duen ordenantza bat onartzea, indarrean dagoen araudi berria dela-eta, eta horretarako baimenik gabe ura kontsumitzea saihesteko.

### C) Araudiaren helburuak:

Uraren ziklo integrala arautzen duen

## CONSULTA PREVIA

- Inicio de expediente para aprobación de la ordenanza sobre el ciclo integral del agua -

El alcalde, mediante resolución 2024/2276 de 18 de octubre de 2024, ha acordado lo siguiente:

Primero.- Someter durante un plazo de 20 días hábiles, a consulta pública previa a la elaboración de la nueva ORDENANZA SOBRE EL CICLO INTEGRAL DEL AGUA, las siguientes cuestiones, con el objeto de recabar la opinión y aportaciones de la ciudadanía y de las organizaciones potencialmente afectadas acerca de:

### A) Los problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa:

Con esta normativa se pretende actualizar la regulación municipal en materia de abastecimiento de agua, así como implantar las normas relativas a la red de saneamiento.

Por otro lado, se pretende establecer un procedimiento claro, transparente y efectivo para gestión de los casos de fraude en el suministro.

### B) La necesidad y oportunidad de su aprobación:

Es necesaria la aprobación de una ordenanza que regule el ciclo integral del agua debido a la nueva normativa existente y en aras de evitar consumos de agua sin autorización para ello.

### C) Objetivos de la normativa

Aprobar una ordenanza reguladora del ciclo

ordenantza bat onartzea, legedia betetzen dela bermatuz eta alde bakoitzaren betebeharrak eta eskubideak argi eta garbi ezarriz.

**D) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaileak eta ez-erregulatzaileak:**

Ordenantza berria onartzea legezko prozedura egokia da deskribatutako helbururako.

Bigarrena. - Kontsulta hau udal honetako iragarki-taulan eta webgunean argitaratzeko agintzea; egoki irizten dioten herritar, erakunde eta elkarteek beren iritziak helaraz ditzaten, udal sarrera-erregistro elektronikoen edo presentzialaren bidez.

integral del agua garantizando el cumplimiento de la legislación, y estableciendo de manera clara las obligaciones y derechos de cada una de las partes.

**D) Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias:**

La aprobación de la nueva Ordenanza es el procedimiento legalmente idóneo para el objetivo descrito.

Segundo.- Ordenar la publicación de la presente consulta en el tablón de anuncios de este Ayuntamiento y en su sitio web para que la ciudadanía, organizaciones y asociaciones que lo consideren oportuno puedan hacer llegar sus opiniones al respecto a través del registro de entrada municipal electrónico o presencial.

Pasaian, 2024ko urriaren 21an. / En Pasaia, a 21 de octubre de 2021.

Zerbitzu, Sare eta Mantentze-lanak saila  
Departamento de Servicios, Redes y Mantenimiento